

EUSKALTEGIA

Gehigarri berezia

2009ko urtarrila

25. Urteurrena



udal euskaltegia

OK

25 urte

Euskalduntze eta Alfabetatzea Oñatin

Historia eta bilakaera

Udal euskaltegiaren historia egiterakoan ezin gara ahaztu zein izan zen bere jatorria edo zeintzuk izan ziren bere aurrekariak. Bere sorrera fenomeno orokor eta zaharrago batekin lotu beharra dago nahitaez. Hain zuzen ere, Euskal Herrian han-hemenka 1960-1970eko hamarkadetan erne zen helduen euskalduntzea eta alfabetatzearen mugimenduetan, alegia, gau-eskolekin.



Euskaltegiaren gaur egungo egoitza, Bidebarrieta kaleko 18an, 2005eko irailean inauguratu zen

GAU-ESKOLAK

Gerra ostea

- Gerra osteko lehenengo hamarkadetan: Felipe Jausorok pertsona bakan batzuei irakatsi zien.

1970eko hamarkada

- 1970etik aurrera gau-eskolak antolatu ziren agustinoetako goieneko pisuan, garai batean Ikastola egon zen lekuan.

- Frankismoaren azken aldera (1971-1975) hainbat irakaslek jardun zuten lan honetan, besteak beste: Euxebe Osa, Bittoriano Madina, Andres Iriondo, Jerardo Elortza, Beatriz Irizar, etab. Eta ikastolako irakasle batzuk, hala nola: Anjel Elortza, Pablo Anduaga, Pili Irazabal, Joxe Mugartza...

- Transiziotik aurrera, IPES institutuan eta zenbait enpresatan, Cegasa, Garai eta Ulman, besteak beste, irakasle hauek ibili ziren: Kepa Umerez, Xabier Ugarte, Koldo Zumalde, Luis Orueta (antolatzaile lanetan), Beatriz

Ugarte, Iñaki Lazkano, Joxe Mari Agirrebengoa 'Txinparta' (T) Xabier Sorroa, Eli Perez de Arenaza eta abar.

1980ko hamarkada

- 1983-84 ikasturtean Gorritxitxiko Haur Eskolan izan zuen egoitza orduko gau-eskolak. Han ibilitako irakasleak hauek izan ziren: Imanol Ugarte, Eli Perez de Arenaza, Ameli Guridi, Jaione Agirre, Esther Moyua eta Roberto Altuna

EUSKALTEGIA

Sorrera

- 1984-85 ikasturtean, Oñatiko Udalak, Eli Galdos alkate zelarrik, bere titularitatepeko euskaltegi bat sortzea erabaki zuen, herrian euskaltegi bat sortzeko premia eta lan horretan urteetako tradizioa zegoela ikusita.

Horretarako Eusko Jaurlaritzak HABE erakundearen bitartez proposatutako eredu hartu zuen. Erakunde biek adostutako hitzarmenez

lagundu eta finantzatu zen udal euskaltegiaren jarduna: HABE irakasleen soldatatz eta didaktikaz arduratuko zen, eta udala langileen aseguru sozialaz eta lokalaz. Irakasleak herri administrazioiko langileak izango ziren.

Egoitzak

- 1984ko irailean, lokal propio baten faltaz, Errekaldeko Herri Eskolako geletan eman zitzaion hasiera udal euskaltegiaren jardunari, kontratatu ziren 4 irakaslerekin eta 117 ikaslerekin.

Hurrengo 21 ikasturteetan 1984tik 2005era herriko euskaltegia leku berean egon da kokatuta eta 2005eko irailean Bidebarrieta kaleko 18 zenbakian dagoen udalaren jabegoko behe batzuetara aldatu zen eta gaur egun ere han darrai. Beraz, 25 urtetako historian bi egoitza ezberdin izan ditu.

Bedita Larrakoetxea Agirrezabala

Euskaltegia sortu zenean, Oñatiko Udal Euskaltegia izenez bataiatu zen, baina 1988an udalak 'Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegia' izen ofizialtzat hartu zuen.

Bedita Larrakoetxea aita agustindarra herrian bizi zen eta berak gerra aurretik Oñatirekin eta euskararekin izan zuen harreman estua gogoratu eta omenduz, bera hil baino lehenago, euskaltegiari haren izena ematea erabaki zuen.

Euskaltegia zenbakitan

Urte hauetan guztietan 25 irakasle lan egin dute bertan eta 1620 lagun pasatu dira bere geletatik, gehienak oñatiarrik; horietako 185ek EGA titulua lortu dute, 300en bat alfabetatu dira eta gainontzekoak euskalduntzeko maila batean edo bestean geratu dira.

ALDAKETAK

25 urte inon alferrik joaten ez direnez, gurean ere ez. Horregatik, ikus

dezagun zer aldatu den epe honetan:

IKASLEAK

- Sasoi hartako ikasleak gazteak ziren, gehienak oñatiarrak, eta eskaldundu edo alfabetatu beharrekoak. Titulu beharra ez zen hain garrantzitsua eta militantismoa indarrean zegoen. Ordu-tegi baten bueltan talde handiak eta nahikoa homogeneoagoak sortzen ziren.

Gaurkoak, aldiz, adinez nagusiagoak dira, jatorri askotakoak (kanpotar eta etorkinen presentzia nabarmenarekin), helburu eta behar oso ezberdinetakoak... Hori dela eta orain geltan dagoen aniztasuna eta atomizazioa kudeatzea tokatzen zaigu: talde txikiak sortu beharra dago dauden behar espezifiko desberdinei erantzuteko, modu ezberdinez atenditu behar dira, honek espezializazio handiagoa eskatzen du, bakkarko atentzioa...eta abar.

IRAKASLEAK

- Profesionalizatu dira maila pedagogikoan zein ekonomikoan.

IKASMATERIALAK

- Liburu soiletatik eta metodo itxietatik bide eklektikoetara eta euskarri aniztetara jo da, tek-

nologia berriak ezarri dira eta gai eta behar espezifikoetarako materialak sortu dira.

HEOKa

- 1999an HEOKa (Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua) ezarri zen eta honetan oinarrিতta bertako euskaltegiaren kurrikulua egin zen. Honek guztiak para-

hizkuntza-erabiltzaile eta euskararen normalizazio sozialarentzako behar-beharrezkoak.

IKTak

- IKTn (Informazio eta komunikazio teknologiak) oinarritutako metodologiak ezarri dira, auto-ikaskuntza metodoak eta sistema konbinatuak erabiltzen hasi gara. Era ho-

TEKNIKARIAK

- Teknikari mordo dago, bakoitza bere alorrean, euskararen normalizazioa lortzeko lanetan: udalean, herriko hainbat lantegitan, administrazioan... Horrek ekarri du esparru gehiagotara iritsi eta jarraipen zehatza egiteko aukera.

DIBERTSIFIKAZIOA

- Euskararen irakaskuntza beste talde eta elkarre batzuetara iristea samurtu gura izan da. Horren adibide: enpresa taldeak, familia bidezko transmisioa indartzeko egitasmoak, dendariak, etorkinak, mintzalagun egitasmoa eta dirulaguntza deialdiak malgutzeara.

Aldaketak eta eboluzioa ikusi ondoren orain non gauden aztertuko dugu. Euskararen irakaskuntza herritarren zerbitzuan jartzeko bidean beronen zati bat urratu dugula esan dezakegu eta, ez edonolako zatia, baina aitortu behar da oraindik bide luzea dugula egiteko: azkeneko urteotako aldaketa guztiak geureganatu eta indarrean ipintzea, eta geure herriko euskararen ezaugarriak behar den moduan txertatzea geure curriculumean. Hau guztiau HABEren ildoari jarraituz eta herriko eragileekin elkartuz lortuko dugu.

Euskalduntze-alfabetatze mugimendua gerra ostean erne bazen ere, 1970eko hamarkadan azaleratu zen indarrez


1980ko hamarkadaren erdian, Udal Euskaltegia sortu zen eta ogibide bihurtu zen euskara-irakasle izatea

digma aldaketa funtsezkoa ekarri zuen, ikuspegi gramatikaletik ikuspegi komunikatibora eman zen jauzia. Harrezkero, euskara ikastea euskara erabiltzeko gaitasunarekin identifikatzen da. Curriculun honek ezagutza eta erabilera lotzen ditu, bata besteari bideratuta dago, ez dago beste helbururik. Euskara erabiltzaileak sortzea du xede eta lan horren fruitu erabiltzaile aurreratuak, oinarrizkoak eta pasiboak egingo dira, baina denak

netan irakasle bat, ikasle batzuk, gela bat eta denak ordu berean lanean jardutea apurto da. Leku-denboraren muga gainditu dela esan daiteke.

TITUTULUAK

- Tituluaren homologazioa gertatu da. Dagoneko euskaltegian lortzen diren lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako tituluak gizarteko beste alorretako titulu gehienekin homologatuta daude, eta laster guztiekin egingo dira.



(*) Iraileko matrikulazio datua

Euskaltegian lan egindako irakasle zerrenda

1. Jabier Arantzeta Garaizabal (†)
2. Maria Jesus Sanchez Castañares
3. Idoia Argoitia Urkiola
4. Itziar Etxeberria Aranburu
5. Arantzazu Lete Ugarte
6. M^a Milagros Ugarte Ugarte
7. Ane Miren Oregi Azkarate
8. Jose Luis Ugarte Garrido
9. Miren Arizmendiarreta Mondragon
10. Jesus M^a Garai Uribetxebarria
11. Xabier Aldalur Ugarteburu
12. Edurne Zuazubeitia Olabe
13. Alazne Intza Araiztegi
14. Eli Perez de Arenaza Barkaiztegi
15. Jose Ramon Zarketa Alberdi
16. Elias Zumalde Barrena
17. Amaia Ugartemendia Bizkarrondo
18. Juan Jesus Anduaga Madinazkoitia
19. Euxebi Osa Unamuno
20. Mirian Garate Intxausti
21. Ainhoa Segura Arkauz
22. Elias Goñi Olalde

GAUR EGUNEKOAK (Argazkia)

Koldo Zumalde Barrena
 Roberto Altuna Erle
 Xabier Zabaleta Etxabe



JABIER ARANTZETA GARAIZABAL



Gaur ere etorri egin haiz gure artera, heme-retzi urtean egin huan bezalaxe. Heme-retzi urtean, bai, esatea samurrago duk! Hik Oñatira hitzak ekartzen hituan; geu ere horietako batzuk ezpainetan hartuta moldatzen gaituk: berba apurrak, berba arruntak, berba merkeak... Beti hitzaren morroi.

Berbak, berbak, berbak eta, jakina, horrek berriketa, tertulixia. Bai, hi oso jarduntsua haiz, hire etorria handia duk; horretan gu oso baldarrak, aldrebesak, motzak. Berdin joshuk, gaur hik ez duk gure esanik etengo. Gaur gure hitzak entzun egin beharko dituk, beno, gureak baina heuri ikasitakoak, heuk saldutakoak: berbak, berbak, berbak.

Heme-retzi urtez hitzak ereiten Oñati aldean, euskaltegian, barnetegian, nonahi. Urte asko, txo! Horietako batzuk erne ere egin dituk, eta uzta ematera iritsi ere bai. Miraria, miraria! Eta hitz horietan beti auzokotasuna, kalekotasuna: panaderixakua beinke!

Hire iturria ez duk agortzen, normala! Ez duk ezer gordetzen, ez dakik isilik egoten: hire kezak, hire ametsak, baita hire konturik intimoenak ere: "handitzen zarenian ikusiko duzu isilik egoteak zenbat balio dun". Kutsatutako hitzak, jarrerak, ideiak... betiko kontraesanak azken finean.

Halako batean, alde egin higan gure ingururik, Donostia aldera. Nekatuta beharbada? Hitzen tunel ilunean hori sarritan gertatzen duk, badakik: alfabeto gupidagabea. Hala ere, hik beste erronka batzuei heltzeko lotsa gutxi, beldur gutxi: kapazidadia! Eta hitzak ikasi eta esatekoak dituk, hondatzekoak, jolas egitekoak; hots berriak, ezezagunak, madarikatuak, inposibleak... Adorea, adorea, bai, esatea samurrago duk!

Jabier, hitzaren behargina izan hintzen, gaituk. Hitzetatik harremanak, harremanetatik proiektuak, lanak... Eta horietatik doinuak -habanera bat, adibidez-, irudiak -Elgeta, adibidez-, sentimentuak -Esther, adibidez-...

Ez adiorik!

Koldo Zumalde Barrena

Bedita Larrakoetxea Agirrezabala

1894 Zeanuri (Bizkaia)-1990 Oñati (Gipuzkoa)

Bedita Larrakoetxea Agirrezabala aita laterandarra Bizkaiko Zeanurin jaio zen 1894an eta Oñatin hil 1990ean, 96 urterekin.

1907an Nafarroako Altsasura joan zen Laterandar Reglako Lekaide (agustino) izateko asmoz, bertan latinikasketak egiteko. Han urte bi igaro ondoren, Oñatira etorri zen azterketak egin eta hiru zinak egitera.


Ondoren, mezatarako ikasketak Oñatin burututa, Gas-teizen abadetu zen 1917. urtean. Gero Oñatiko komentuan (agustinoen seminarioan) irakasle. 1928tik aurrera, eta horretarako Iruñeko Irakasle Eskolan azterketak gainditu eta Irakasle Agiria lorturik, Oñatiko Udal Irakastegiko Zuzendari eta Rodrigo Mercado Zuazola izeneko Irakaskuntzako Gau-Eskolako irakasle 1936. urtera arte. Gerra zibila lehertu zenean, bere euskaltzaletasuna zela-eta, Bizkai aldera alde egin behar izan zuen 1936ko irailaren azkenetan. Hurrengo urteko maiatzean Ingalaterrara joan zen gerratik ihesik han babestu ziren euskal haurren ardura-dun bezala. Handik, urtebete pasatxo iragan eta gero, Uruguaira eta ondoren Argentinara jo zuen; bertan Sالتako 'Colegio Belgrano' delako eskolan 1970. urtera arte irakasle izateko.

1972an Amerikari agur egin eta atzera Euskal Herrira etorri zen eta Oñatin, agustinoen egoitzan, eman zituen bere bizitzako azkenengo urteak 1990ean hil zen arte.

Baina, hil aurretik 1979an, euskaltzain ohorezko izendatu zuten eta zenbait omenaldi ere egin zioten.

Bere idazlanak:

- 1926-1928 "Euskal Esnalea" aldizkarian hainbat lan.
- *Gorbeia*ko gaztagintzea, 1928an- "Itzaldiak V"- Euskal Esnalea
- "Oñatiko lutelestia", 1932an. Argitaratugabe.
- 1930ean Garcia Peñaren '*Patologia Vegetal*' liburu mardula euskaratu zuen.
- '*Agirrezabala 'tar Tomas talogintzan txapeldun'*, 1934an, Kirikiño saria.
- *Euskal Ekandu Laukiak*, 1935ean
- *Alkarregazko Yardukera*, 1937an
- Eliza hitzaldi mordoia.
- Gabriel Jauregiren '*Pisia eta Kimia*' izeneko liburua ren euskara orraztu zuen.
- Baina berak egindako idazlanik handiena eta neket-suena, duda barik, '*Shakespeare-ren antzerki-lan guztiak*



JAKIN BEHARREKOAK

Shakespeareren antzerki lan guztiak euskarara itzuli zituen Beditak

1988an Bedita Larrakoetxearen izena hartu zuen Oñatiko Udal Euskaltegiak

euskeraz' izan zen: banaka batzuk "Euzko Gogoa" aldizkarian 1950eko hamarkadan argitaratu baziren ere, edizio osoa 1976an kaleratu zen, 37 antzerki-lan guztira.

Oñatiko Udalak 1988an Bedita Larrakoetxea hil aurret-xoan eta haren omenez, ordura arte '*Oñatiko Udal Euskaltegia*' soila zenari, '**BEDITA LARRAKOETXEA**' izena jartzea erabaki zuen. Alde batetik Oñatiko komentuan irakasle eta Oñatiko Udal Irakastegian eta Gau-Eskolan ere irakasle ibili zelako, eta bestetik euskara goratzeko hainbeste lan egindakoa zelako.

Horrela, garai hartan sortu ziren beste euskaltegi batzuetan egin zen moduan, euskara eta herriarekin lotura zuzena eta estua izan zuen itzal handiko pertsona baten izena aukeratu zen herriko euskaltegiari izena emateko.

Oharra: 'Bedita' Benito izenaren neologismoa da.

Ikasle ohien oroitzapenak



**Arantza Agirre
Vicente**

Aurten, Bedita Larrakoetxea udal euskaltegiaren 25. urteurrena ospatzen dugu. Gauza asko aldatu dira urte hauetan: tokia, instalazioak, baliabideak...; hala ere, badago zerbait urte horietan guztietan aldatu ez dena, hau da, irakasleen hurbiltasuna eta laguntzeko gogoia, ikasleok euskaraz, inolako beldur barik, ari gaitzen. Nire kasuan, behintzat, horixe izan da lagungarriena eta gehien estimatzen dudana. Bihotz-bihotzez mila esker.

Zorionak, eta kemen horrekin jarraitu beste 25 urtetan, gutxienez.



**Jose Vidal
Vazquez**

Joan zen mendean jaio nintzen, Bartzeionan. Niretzat, Euskaltegia elkarte bat bezalakoa da. Barruan jende asko egon arren, guztiak ezberdinak dira, eta, hala ere, helburu bakar batekin: Hizkuntza.

Bestalde, jendea hara joaten da, nahi duelako; beraz, oso giro polita edo atsegina lortzen da.

Amaitzeko, zera esango nuke: esaldi hauek idazten baditut ikastaro batzuekin, edonork lor dezakeela. Ikasle ohi bat.



**Jose Luis Calvo
Martin**

Euskaltegia hitza aipatzean burura etortzen zait lana, konstantzia, esfortzua... baina batez ere euskara ikasteko neukan gogoia, klase giro alaia eta jatorra, eta izandako irakasleen (Eli, Xabier, Koldo eta Euxebi) ardura eta laguntza.

Hau guztia esaldi batean laburbilduta: eskerrik asko bizi eta berri bati ateak zabaltzeagatik.



**Enrike Blazquez
Diaz**

Euskara ikasi, zergatik? Egia esanda, 25 urte pasatu ondoren ez dut gogoratzen zehazki zergatik hasi nintzen euskara ikasten. Seguru asko arrazoi desberdinak izango ziren. Baina, azkenean, arrazoi guztien artean nik aukeratutakoa hau da: Euskara ikasi, zergatik ez?



**Mª Luisa Santos
Marcelino**

Ni portugaldarra naiz eta euskaltegian ibili nintzen ikasten orain dela urte gutxi. Oso pozik nago bertan ikasitakoarekin eta, gainera, ikasitakoa oso erabilgarria egin zait. Ikasteaz gain, lagun asko egin nituen. Ez dut sekula ahaztuko bertan bizitakoa, giro ona baitzegoen ikasle eta irakasleen artean. Obrigado.



**Dorleta Lizaur
Madinabeitia**

Orain urte batzuk euskaltegira joan nintzen euskara ikasi nahian, edo hobeto esanda barruan neukan oñatiar hori kanporatzeko. Euskaltegiko irakasleek ateak ireki zizkidaten. Lagunak egin nituen, bai ikasleak eta bai irakasleak.

Harro eta pozik nago harrezkero. Nire mailan neu ere hazi egin naiz "euskaraz bizi" lelopean. Euskaltegian giro atseginean euskaldundu nintzen, eta orain berdin jarraitzen dute.

ANIMATU egiten dut euskara ikasi nahi duena euskaltegira joatera. IRAKASLEEI ZORIONAK eta jarraitu horrela irakasten eta irakasten.



IKASLE ANONIMOAK

Banan-banan:
izen-deiturak, aurpegiak...

... eta bakoitzaren lehen eguna,
... eta bakoitzaren arrazoia,
... eta bakoitzaren gaitasuna,
... eta bakoitzaren ingurua,
... eta bakoitzaren asmoa.

Banan-banan berriro:
izen-deiturak, hotsak...

... eta bakoitzaren ezinak,
... eta bakoitzaren nekeak,
... eta bakoitzaren erabakiak,
... eta bakoitzaren ametsak,
... eta bakoitzaren arnasak.

Banan-banan hitzez hitz:
izen-deiturak, doinuak...

... eta bakoitzaren bidea,
... eta bakoitzaren neurria,
... eta bakoitzaren sentimendua,
... eta bakoitzaren ekarria,
... eta bakoitzaren oroimena.

Banan-banan:
izen-deiturak, behin eta berriz...

ESKERRIK ASKO



Adituen begietan

“Etorkinen euskalduntzean dago neurri handi batean euskaltegiaren etorkizuna”

Mikel Iturrospe - Udal Euskara batzordeburua

Oñatiko euskaltegiaren 25. urteurrena dela eta hitz batzuk idazteko eskatu didate, beraz nahiz euskaltegiak historia luzea duen, neu, euskara-hezkuntza batzordeburu naizenetik honako garaiaz mintzatuko naiz.

Oñatiko kasuan, euskararen egoerak fase ezberdinak izan ditu eta egindako lan serioari esker gaur eguneko egoerak etorkizunari itxaropenez begiratzeko aukera ematen digu. Herrian eta gure gazteen artean gehien erabiltzen den hizkuntza da euskera eta poliki-poliki gizartearen beste arlo batzuetan ere badoa erabilera gehitzen.

Euskaltegiak gaur egun behar guztietara moldatzeko aukera du eta adibide gisa, hor daude dendari direnendako euskara ikastaro bereziak edo eta enpresa mailako langileriarantzat edo gure artean gero eta ugariago ditugun etorkinendako ikastaroak.

Azken talde honetan nahiko nuke zentratu une honetan, izan ere, etorkizunari begira, beste egoera konkretu batzuk kontuan izanda ere, beraiek izango baitira edo izan beharko lukete euskaltegiko bezerorik garrantzitsuenak; egu-



neroko bizitzan ikusten ditugun bezala, Oñatiko gizarte arlo ezberdinetan daude presente eta.

Etorkin hauek, bertako egite prozesuan, euskara izango dute erreminta garrantzitsuenetako bat Oñati bezalako herri euskaldun batean. Asko eta asko ari dira pertsona nagusien zaintzan, adineko pertsonekin harreman normalak izan ahal izateko ere behar beharrezkoa dute euskara maila oinarritzko bat lortzea, baita lantegietako giroan sartu eta parte sentitzeko ere, eta merkataritzan eta zer esanik ez kalean.

Aurrera begira, etorkinen euskalduntze-prozesuan egitasmo sendo, eguneratutako eta moldagarrietan asmatzean dago neurri handi batean euskaltegiaren etorkizuna, eta bide horretatik jo behar du nire ustez. Horretarako udal-leko euskara-hezkuntza batzordea beti dago prest, elkarlanean, markatutako helburuetara iritsi ahal izateko behar den laguntza emateko.

Orain arteko guztiarengatik beraz, zorionak eta beste urte askotarako!

“Hizkuntzaren erabileran dago gakoa, eta hori gehitzeko, euskaldun zaharrak eta berriak bat eginik jokatu behar dugu”

Marian Lizarralde - Udal Euskara zerbitzaburua

Azken boladan erakunde asko ari da 25. urteurrena ospatzen, garrantzitsuak izan dira azken 25 urte hauek gure historian, gure bizitzan. Baina zer eragin izan du gure gizartean batek eta bestek, bakoitzak bere zereginen egindako lanak? Urrats handiak eman dira, dudarik ez, sarritan motelegi goazeneko sentsazioa izan ohi dugun arren: hor ditugu irakaskuntzaren eremuan egindako lanaren emaitzak, hor ditugu euskarazko irrati eta telebistak, hor lantegi askotako normalizazio planak, administrazio alorreko zerbitzuak euskaraz jartzen, ...baina bada zerbait huts egiten duena: eguneroko bizitzan egiten dugu kale, hain zuzen errazena dirudien horretan, euskaraz jakin eta ahal den guztietan ez egitean.

Eta...hizkuntzak ahotik belarrira doaz, hortxe dago hizkuntza bizi-bizi mantentzeko sekretua: mingaina dantzan jartzean; hortxe ikusten diot neuk gure Euskaltegiari aurrera begira eginkizun ederra, molde berriak asmatzean.

Gure artean Udal euskaltegia dugu ikasturte honetan



ospakizun etan sartua, eta ospatzekoa da bai, bide luzea egin baitu. Baina...non daude urte horietan Euskaltegian euskara ikasi duten 1.600 ikasleak? Non dute lanlekua? Non bizitokia? Eragin dute gune horietan?

Eta, guk euskaldun zaharrok:

- lagundu diegu ikasitakoa erabiltzen?
- sentiarazi diegu egiten zuten ahalegina egiteak merezi zuela?
- euskaldun ikusten ditugu ala beti bezain eraldun sentitzen ditugu?

Hainbat euskaldun berrirekin ustekabe handia hartuko genuke oñatiera politean hitz egiten ikasi dutela ikusita, baina horretarako beste begi batzuekin ikusi behar ditugu, garbi dago denok jarri behar dugula gure aldetik zerbait.

Eta Euskaltegiak? Euskaltegiak pozik ospatu orain artean egindakoa eta aurrera begira bide berriak irekitzen jarri jomuga, behar berriei erantzun berriak emateko.

Bien bitartean URTE ASKOTARAKO!, euskaldunok esan ohi dugun moduan.

“Asko lortu bada ere, geratzen dena ez da gutxi”

Jerardo Elorza - Filologoa eta historialaria

Garai batean euskaraz ikasteko eta irakasteko izan genituen ezinak, eragozpenak eta etenak kontuan izanik, pozgarria da Oñatiko euskaltegiak 25. urteurrena ospatzen diharduela ikustea. Pozgarria bi hamarkada t'erditan zehar helduen euskalduntzea eta alfabetatzeari ganoraz heldu ahal izan zaiolako; 1970etik aurrera burutu ziren meritu askoko baina baliabide gutxiko ahalegin nekoso haiei jarraipen itxurosoa eman zaiolako; eta baita metodologian nahiz bitartekoetan aurrerapen nabarmenak egin direlako ere.

Beste atal batean adierazten eta zehazten dira mende laurden honetan euskaltegiak izan duen bilakaerari buruzko datuak eta jakingarriak: ikasle zein irakasleen profila, ikasmaterialaren arloko aldakuntza zein aurrerakuntzak, eta abar. Premiak aldatu diren heinean euskaltegiak ere egokitu beharra izan du egoera berrietara. Urrats garrantzitsuak eman dira arlo askotan eta sasoi bateko gabeziak ez dira, agian, lehen bezala nabaritzen. Horregatik-edo, ez da duela urte batzuk geneukan euskal militantziaren beharrik sentitzen, zenbait lorpen betiko ziurtaturik dugulakoan. Horrek, berez txarra izan ez arren, badu bere arriskua: aurrerabidea moteldu ez ezik, nekez lortutakoa ere azkar gal baitezakegu.

Euskaltegia saiatu da azken urteotan, ikasgeletara datozen ohiko ikasleenaz gain, beste sail batzuetako premiei ere



erantzuten: merkataritzan, administrazioan edota industrian ari diren langileenak, adibidez, bakoitzari ahalik eta ikasbiderik egokiena eskainiz. Eta ezin aipatzeke utzi euskaltegiak bultzatuta Oñatiko euskara lantzen eta eguneratzen egin den lan bikaina. Hainbat urteren buruan oñatieraren inguruko material ugari bildu, moldatu eta sortu da; berau herriari ezagutarazi egin zaio *Kontzejupe-tik* aldizkarian atalka edota liburuxken bidez (*Aditz-aulak*, esaterako); eta Oñatiko eskoletako irakasleei nahiz bestelako herritarrei ikastaro bereziak eman zaizkie, geurea sakonago ikasiz, herriko euskararen eta batuaren arteko zubigintza erosoago eta jatorrago erakitzeke modua izan dezaten.

Eginak egin, egiteko geratzen dena ere ez da gutxi. Hurrengo urteetarako dugun erronka ez da makala. Ezagutzamaile gehitzearekin batera hizkuntzaren kalitatea ere arreta handiz zaindu beharko da; gutxi jorratutako esparruak euskararentzat irabazi, gazteen artean bereziki; dagoeneko etorkinekin egiten den lana areagotu; Oñatin aski ona den euskararen erabilerari eutsi eta bultzada berria eman, besteak beste. Euskaltegiak ezin die premia guztiei berak bakarrik heldu, baina herriko beste gizarte-eragileekin elkarlanean asko dezake, denon artean behin betikoz eta berandu barik Oñatin ere normalizazio linguistikoa lor dezagun.

IRAKASLEEK ZER DIOTE?

Koldo, Roberto eta Xabier Euskaltegiko hiru irakasleek zera nabarmendu nahi izan dute:

• ESKER ONA

Ikasle guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu, ez baitiegu behar beste eskertzen euskara ikasteko eta hobetzeko egindako ahalegina. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!

• GUZTION INPLIKAZIOA

Euskaltegikoak jarraipena behar du kalean. Ikaslearen ahaleginak, fruiturik emango badu, beste guztion laguntza eta bultzada behar du. Denon zeregina da hasi berriei bidea errazago egiten laguntzea

• IKASTERA ANIMATU

Euskaraz bizitzeko ahalegina egitea merezi du. Gainera, orain, euskaltegian inoiz baino aukera eta eskaintza zabalagoa dago. Euskaltegia ongi hornituta dago bakoitzaren beharrei erantzuteko.



Gaurko ikasleen iritziak



**Tarsicio Osés
Dendarien**
taldekoa **1-b maila**

1.- Euskara ikasteko asmoarekin etorri naiz euskaltegira eta poliki-poliki ikasten nabil. Euskaltegian gauza on asko aurkitu dut: jende jatorra lehenengo eta behin, lagun berriak eta euskara munduan sartzeko aukera.

2.- Munduko erreztasun guztiak eman dizkirate euskara ikasteko, ordutegi ona, talde egokiak eta primerako giroa.

Hasieran beldur pixka bat banuen ere, euskara ikastea uste baita no samurragoa izan da.



**Bixente
Unzurrunzaga**
2. maila

1.- Euskalduna izan, euskeraz pentsatu eta euskera berba egiteko egunero erabili arren, euskeraz idaztea falta zitzaidan eta barruan senti tzen

nuen hutsune hori betetzeko etorri naiz euskaltegira. Bertaratu eta gero konturatu naiz ez hori bakarrik, beste aukera batzuk ere eskaintzen dizkidala euskaltegiak.

2.- Euskaltegian lantalde bat topatu dut, giro polita eta alaia; lagun batzuk egiteko aukera ere bai. Bertan igarotzen ditudan orduak laburrak egiten zaizkit, oso gustura natorrelako, baina dena esateko esan behar da ikasteak konpromezua eskatzen duela, konpromezua norberarekin eta lantalde osoarekin. Hori barik jai dago!



**Wednesday Silva
Lopes**
2. maila

1.- Nire lagun oñatiarrak ezagutu nitueanean, euskeraz agurtu ninduten. Orduan hasi zen nire lehenengo abentura eukararen munduan, hitz gutxi batzuekin. Gogoratzen dut esaten nuela "Egonun" eta "Zoroniak", "Egun on" eta "Zorionak" esan beharreen. Gero interneten bidez ikasi nituen beste hitz batzuk, adibidez: zer moduz, ondo nago, eskerrik asko, etab. Kuriosoena izan zen asteko egunak ikasi eta jakin nuenean nola esaten zen nire izena euskeraz, kar kar kar. Hau guztia izan zen Oñatira etorri baino lehen.

Oñatira heldu nintzeanean, nire lagunek animatu ninduten euskaltegian izena ematera, eta hori egin nuen; horregatik nabil hor gaur egun.

Zeren bila? Argi eta garbi dut: euskara ikasten jarraitu nahi dut euskeraz hitz egiteko, beste hizkuntzetan egiten dudana bezala. Hemen bizi naizen bitartean, euskara ikastea oso garrantzitsua izango da, nire gertuko lagun eta ezagun batzuekin ere euskeraz berba egiten dugulako.

2.- Euskaltegian asko ikasteaz gain, oso giro ona dago irakasle eta ikasle on artean. Lagun asko egin ditut, eta espero dut gehiago egitea. Orokorrean primeran pasatzen dugu: txisteak kontatzen ditugu, eta txisteak kontatu barik ere, askotan kriston barreak egiten ditugu; izan ere, euskeraz esaten duguna, askotan munduko txisterik hoberena baino hobea izaten da. Espero dut giro horrek horrela jarraitzea urte askoan.

Zorionak, bihotz-bihotzez.



**Ibis Rodriguez
Johnson**
Hasiberria

1.- Ni Ibis Rodriguez Johnson naiz. Ni Kubakoa naiz, baina Oñatin bizi naiz orain dela hamalau urte.

2.- En Oñati vivo muy contenta, pues en su día decidí integrarme a esta sociedad y asumir tanto a mi decisión, todos los pro y los contra que ello conllevaba, y por supuesto, entre uno de mis retos está la motivación al aprendizaje del euskera, pues después de catorce años de vivencias y sentirme totalmente integrada social y culturalmente en el pueblo, es primordial para mí que llegue el día en que pudiese dialogar en euskera con mi familia, amigos, etc... Por todo ello, actualmente me encuentro recibiendo clases de euskera en el euskaltegi, concretamente en el grupo de Koldo, en el que me siento atraída por la dinámica de las clases, basadas en el diálogo e inquietudes por nuestra parte como alumnos referentes a las materias recibidas. Realmente me siento satisfecha de haber iniciado el curso y espero continuar hasta el final de mi meta durante los años que sean necesarios. Os saluda atentamente. Ibis Rodriguez.

1.- Zer dela eta hasi zara euskaltegian?

2.- Zer aurkitu duzu bertan?



Vilma Soto Herrera
1. A maila

1.- Euskara ikasi nahi dut alabei eskolako lanak egiten laguntzeko. Horrez gain, lanean bezeroekin euskara erabili nahi dut, San Lorenzo auzoan liburu-denda bat daukat eta.

2.- Ikasten ari naiz poliki-poliki. Jendea dendara etortzen denean, euskaraz eskatzen didate, eta nik ere euskaraz egin nahi diet. Lehen ez nien ulertzen, ez nekien eta euskaraz; orain, euskaltegian ikasitakoari esker, ulertzen diet. Gainera, giro ona daukagu eta euskaltegian Oñatiko jendea ezagutu dut.



Amaia Anakabe

Momentu honetan langabezian nagoenez eta euskaldun zaharra naizenez, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) titulua ateratzeko garai egokia dela pentsatu dut. Oñatiko udal euskaltegira etorri naiz laguntza eske. Euskaltegian euskara aberasten nabil, besteak beste, idazlan konplexuak idatziz, aditzak landuz, sinonimoak ikasiz, etab.

Bertako euskeria sakonduaz

Aspaldiko kontua da orain dakarguna, geure herrixan euskeria lantzen hasi zaneke dain zaharra, behintzat, bai. Danok dakigu euskaltegiaren asmua jente nagusixaren euskaldunketia eta alfabetaitia dala, jentia euskalduna edo erdalduna dan kontuan hartuta.

Eta puntu horretan sortzen da lehenengo koskia: datozen ikasle danairi bardin erakutsi, euskera batua, batu soilla esan dagigun, edo norberak dakixenetik hasita euskera batu horretara fan?

Pedagogiak esaten dosku norberak dakixenetik hasia dala egogixena eta hori abixapuntu moduan hartuta, berori argittuaz, sakonduaz eta landuaz, beste barri edo ezezagun horretara fan bihar dala.


Baiña segittuan datorkigun ittauna beste hau da: nun dago herriko euskeria jasota? Badago horren gaiñeko libururik, gramatkarik, eskola-testurik? Erantzuna da herriko euskeria eskribittek orain arte ezta larregi ebali eta dagozen lantxuak oso balixagarririk eta interesgarririk izan arren, nahikua bakanak dirala, eta eskola liburu sendo baten falta haundixa daguela, gramatikia-edo esango geukena.

1995. urtian ikusten geben hutsuna hori bete guran, herriko euskeria jasoten hasi giñan, beste herri batzuetan zer egin zan ikusitta eta geruago Badihardugu Alkartiarekin harremanetan jarritta.

Harrezkero denporia fan da eta ordutik hona egindako lanak zirindara baten jarriko dittugu ondoren:

1. Kontzejupetik aldizkarixan 1996ko bagilletik (ekaina) - 2002ko agorrera (iraila) TTIRRI-TTARRA izeneko orrialde bat argittaratu zan, 67 ale danera.
2. 2002ko abenduan, Kontzejupetik aldizkarixarekin batera Oñatiko euskeriaren aditz-atalak argittaratu zan.
3. 2005eko abenduan, Badihardugu Alkartiare bittartez, Oñatiko aditz-ataleak kaleratu zan.
4. 2007ko apirillian, Oñatiko eran eskribittek argibidiak txostena idatzi eta herriko eskoletako web-orrixtetan txinxilikatu zan.
5. Kaleratu barik baiña txukun samar, ixixa publikaitteko moduan, herriko lexikua jasoten dittuen bi lan dagoz egindda: 1) Oñati aldeko lexikua gaika 2) Oñatiko lexikua II
6. Kontzejupetik aldizkarixan 2007ko abendutik gaurko egunera arte, oraingoz 13 ale, Oñatiko euskeria deritxon orrialdia.
7. 2002tik 2008ra bittartian Oñatiko euskeria lantzeko herriko maisu-maistrendako emundako hogei orduko sei ikastaro motz.

Lan desbardin honein azken asmua herriko euskeriaren eredu bat izatia da, ahalik eta jatorrena eta osotuena, gero, etxetik hasitta, edozein lekutan ebali ahal izateko. Eredu hori finkaketan goiaz eta etorriko da eguna eskoletan be landu eta erakutsi ahal izango dana. Hala izan dedilla!



25. URTEURRENEKO EGITARUA

HITZALDIAK

Gaia: *'Oñatiar ospetsuak historian zehar'*

Hizlaria: Jerardo Elortza filologo eta historialaria

2008ko azaroaren 19an, asteazkena



Gaia: *'Oñati, XVI. mendean'*

Hizlaria: Jose Antonio Azpiazu historialaria

2009ko otsailaren 18an, asteazkena



Gaia: *'Lazarraga, ernazimentua euskaraz'*

Hizlaria: Pruden Gartzia historialaria

2009ko maiatzaren 6an, asteazkena



HITZALDI-PROIEKZIOA

Gaia: *'Kolonbia'*

Hizlaria: Fernando Odriozola bidaia-gidaria

2009ko urtarrilaren 14an, asteazkena



ANTZERKIA

'Euskara sencilloaren manifestoa'

Maskarada taldeko Mikel Martinez eta Patxo Telleria

2009ko ekainaren 5ean, ostirala, gaueko 10:30ean Santa Ana antzokian



HERRI AFARIA ETA FESTA

2009ko ekainaren 19an, ostirala, 25.urteurrenari amaiera emateko festa eta afaria.

Euskalgeitik pasatutako ikasle guztien eta gaur egunean gurekin ikasten dabiltzaneren festa egin gura dugu. Afariaren lekua eta gaineko xehetasunak zehazteko daude.



GONBITA

25. urteurrenerako antolatu ditugun ekintza guztietan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu. Hona hemen Oñatiko Bertso Eskolako arduradunak, Iñaki Olalde 'Txomingain'-ek, prestatu digun bertsoa.

Hogeita bost urte dira kontatu ditzagun OZEN hemendik pasatu gera ziur ehundaka IZEN euskaraz ikasi nahian ahalik eta ERRAZEN hiztegiko hitz goxoak eguneroko ALMAZEN ikasle, irakasleak, gogotsu denak HAIN ZUZEN eskutik alkarri helduta euskaraz aurrera GOAZEN gonbidatu nahi zaitugu gurekin izan ZAITEZEN zilarrezko urte hauek urre bihurtu DAITEZEN

Doinua: Habanera.

*25. urtea
eten ez den katea*



OÑATIKO UDALA